



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@jalgi.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Nazionalisten desadostasuna Vianan

Lizarra-Garazin sortutako oihartzu-
nak ez dira iritsi Nafarroako mugan
dagoen hiri txiki honetara. Bere ha-
rresi altuek lurralde osoan zehar za-
baltzen ari diren batasun-oihuak
entzutea galarazten diete lagun ba-
tzuei. Aintzinako garaian Gaztelari
aurre egiteko bertokoak batzen zi-
tuzten harresi horiek ere ez dute Es-
painiaren menpe jarraitu nahi du-
ten sikarioei aurre egiteko vianar
abertzaleen batasuna lortu. Eta beti
bezala ez dugu erruduna kanpoan
bilatu behar, gure artean baizik. Ez
genituzke hurrengo hauteskundeak
irabaziko, ziur aski, baina lortutako
zinegotzi-kopuruari esker gure aho-
tsa ozenago entzungo litzateke uda-
letxean. Azkenean bi zerrenda aber-
tzaletan lehian izango dira eta horrexe-
gatik Nafarroako EAJri galdetu nahi
diot: Zergatik ez zuen ezer egin bere
kideek hautagai-zerrenda batua
adostu zezaten?

Vianan izan ezik, leku guztietan
bozketa bidez eta batzarrean har-
tzen dira erabakiak. Herri honetan,
aitzitik, EAJren aldeko gehiengoa
EHrekin denon zerrenda egiteko
prest bazegoen ere, kide bakar ba-
tek nahi zuena egin da. Pertsona ba-
ten gutizia ulertezina eta alderdia-
ren pasibitateagatik abertzaleok se-
kulako aukera galdu dugu
Erriberan eta ezingo ditugu gure bo-
toak zerrenda abertzale bakar bate-
an bildu. Beharbada hori zen nor-
baiten isileko desioa. «En la lista só-
lo van los que nosotros digamos y por
cojones nos vais a tener que votar,
así que...» argudiatu omen zien EH-
koei, hauek beraien baldintza onar-
tezinak onetsiko zituztelakoan. Ha-
la ere, Bianako ezker abertzalearen



kandidatura berri bat 5 egunetan
osatzeko gaitasunaz ahaztu zen
karlista ohi hura. Halaber, gure pro-
posamenek aurrera egitekotan he-
goaldeko nafar abertzale guztiok el-
karrekin lan egin behar dugula
ahaztu zuen.

Azkenik, Vianako EAJko gai-
nontzekoei eta alderdi honen zale-
ei zera esan nahi nieke: Ez ezazue
utzi zuen borondatea itsu politiko
baten eskuetan, zeren eta gizarte-
aren eremu guztietan, ikastolan,
udalean, zuek kontrolatu eta
manipulatu nahi baitzaituzte.
Auskalo noren onerako!. **Natxo
Antoñana** • Viana (NAFARROA)

Kolore biziak gazte(her)rian!!

Jadanik ezaguna da euskal gazteria-
ren konpromezua Euskal Herriare-
kiko. Gazte antolakuntza ezberdinen
konpremezuz beteriko milaka dina-
mika eta borroka izan dira Euskal
Herria kolore biziz margotu dutenak:
irriti libreetan lanean, gaztetxeak
sortu eta garatzen, Euskal irakas-

kuntzaren alde borrokan, Euskal
Herria desmilitarizatzen... Belaunal-
diz belaunaldi transmititu eta indartu
diren dinamikak izan dira.

Borroka hauek eta gazte mugi-
menduak berak ere iturburu bera
dute: herri kontzientzia batean jaio-
tako gazteak gara, kontzientzia ho-
netatik jaiotako gazte mugimendua
gara eta inposaturiko lurralde zati-
keta hori gainditu eta herri bakar
bat, gazte(her)ri bakar bat eraiki-
tzea dugu helburu. Ildo honetatik
antolatu ditugu *I.go Hirumuga Gaz-
te Topaketak*. Hirumuga mendia
Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa ba-
tzen dituen mendia delako, muga-
rria baino gehiago.

Topaketa hauetan Sakana, Lau-
tada eta Goierriko Gazte Mugimen-
duko partaideok gure harremanak
sakontzeko parada daukagu Maia-
tzaren 21, 22 eta 23an Ziordian.
Gure dinamikak eta beharrak azter-
tu eta elkar trukatzeko aukera ezin
hobea. Goierri, Sakana eta Laut-
dako gazteei gonbit egiten dizuegu,
Ziordian, Topaketa hauetan parte
hartzeko. **Iker Arroniz eta beste bi
sinadura** • ZIORDIA (NAFARROA)

galdeiozu...



Roman Sudupe

• GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA •

**Zer lortu nahi du
Espainiako
Gobernuak Kontzertu
Ekonomikoaren aurkako
erasoekin?**

Julen Azpeitia [Donostia]

■ **ARGI DAGO** Espai-
niako eskema autonomi-
koan Euskadi bezalako
herri baten autogobernu
nahia ez dela erraz sar-
tzen. «Denontzako kafea»
esamoldeaz ezagutu den
joera bide politiko eta
parlamentarioak erabiliz
aurrera ateratzen lortu
ez bazuten ere, bide
judizialetik ezartzen
ahalegintzen dira orain.
Aldi berean, eraso horiek
beraiek erakusten dute
Kontzertu Ekonomikoak
autogobernurako dau-
kan garrantzia, orain
arte beste batzuk mes-
pretxuz begiratu badute
ere.

Maiatzaren 25etik aurrera
Joseba Tapia • TRIKITILARIA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

